



# 2022ko TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN EMAITZEN TXOSTENA

BEHIN BETIKO TXOSTENA | 2022

# AURKIBIDEA

<b>1. Aurkezpena .....</b>	<b>4</b>
<b>2. Lan prozedura.....</b>	<b>6</b>
<b>3. Nola irakurri dokumentu hau .....</b>	<b>7</b>
<b>4. Antolakuntza .....</b>	<b>8</b>
Sarrera.....	8
Udal antolakuntza.....	8
Jai bilerak .....	9
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	12
<i>Aurrerapenak.....</i>	<i>12</i>
<i>Proposamenak .....</i>	<i>12</i>
<b>5. Komunikazioa.....</b>	<b>14</b>
Sarrera.....	14
Kartela .....	14
Egitarauaren eskuorria .....	15
Prentsa oharrak, sare sozialak eta hedabideak .....	16
Udaleko agerraldiak .....	18
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	19
<i>Aurrerapenak.....</i>	<i>19</i>
<i>Proposamenak .....</i>	<i>19</i>
<b>6. Egitaraua .....</b>	<b>21</b>
Sarrera.....	21
<b>Txupinazioa.....</b>	<b>21</b>
Txupinazioa eta bere izendapena .....	21
Txupinazioaren momentua eta diskurtsoa .....	22
Aurrekontua .....	22
Ondorioak berdintasunaren ikuspegitik .....	23
Aurreko urteekin alderatuz .....	23
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	24
<i>Aurrerapenak txupinazioan .....</i>	<i>24</i>
<i>Proposamenak txupinazioan.....</i>	<i>24</i>
<b>Musika .....</b>	<b>25</b>

Sarrera / Metodologia .....	25
Ekintzaren kokapena .....	25
Jardueraren deskribapena eta analisia .....	25
Partaidetzaren genero analisia.....	26
Antolakuntza eta aurrekontua .....	31
Datuak laburbilduz.....	31
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	32
<i>Aurrerapenak</i> .....	32
<i>Proposamenak</i> .....	32
<b>Kirolak .....</b>	<b>34</b>
Metodologia .....	34
Ekintzaren kokapena .....	35
Jardueraren garrantzia, deskribapena eta analisia .....	35
Partaidetzaren genero analisia.....	36
Datuak laburbilduz.....	38
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	39
<i>Aurrerapenak kirolean</i> .....	39
<i>Proposamenak kirolean</i> .....	39
<b>7. Indarkeria .....</b>	<b>40</b>
Sarrera.....	40
<i>Joka sano! Tolosak, ezetz! #LIBRENonahi</i> kanpainak eta beste jarduera batzuk .....	40
Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa .....	41
Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak .....	42
<i>Aurrerapenak</i> .....	42
<i>Proposamenak</i> .....	43
<b>8. Balorazio orokorra .....</b>	<b>44</b>
<b>9. Gehigarriak .....</b>	<b>46</b>

## 1. AURKEZPENA

Tolosako Udalak 2010 urtetik darama jaietan berdintasun ikuspegia txertatzen era aktibo batean. Urteetako prozesuari jarraipena eta egonkortasuna emateko asmoz, 2016 urtean, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia diseinatu zen Berdintasun Sailaren lidergoarekin. Behatokiaren helburua berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorren aplikatzeko tresna izatea da, jaiak berdinzaleagoak izan daitezen. Helburu honetan udaleko hainbat udal sailek parte hartzen dute neurri eta modu oso ezberdinetan.

Ez dugu ahaztu behar Behatokia epe luzeko ikuspegian, hobekuntza iraunkorrean eta progresibotasunean (funtzioak, eragile partaideak, lanketa esparruak eta jaiak hazten joango dira) oinarritzen dela. Ideia hau azpimarratu behar dugu, hain zuzen ere, Behatokia udalarentzat eta herriarentzat tresna "bizia" bezala ulertu behar delako hau da momentuan momentuko jaietara eta Tolosar jendartera egokitu behar dena.

2017 urtean, Behatokia lehen aldiz martxan jarri zen. Urte horretan, diseinatutako eredia eta tresnen froga egitea planteatu zen, eta hemendik ateratako ikaspenetan oinarrituta, beharrezko hobekuntzak egin ahal izan ziren. Ondorioz, 2017an San Joan jaietan egindako lanketarekin Txosten bat egin zen.

2018an aurreko urteko ikaspenetan oinarrituta Behatokiak lanean jarraitu zuen, eta beste esparru batzuetara ireki zuen bere lanketa eta eragin markoa; hau da, Behatokia jaietako kirol jarduerak txertatu zituen bere analisian, baita Larramendiko jaiak ere.

2019an, COVIDaren ondorioz, Behatokiak urte horretan San Joan jaiak aztertu beharrean (ez ziren jaiak ospatu), Inauteriak aztertu zituen (horiek bai ospatu ziren). Beraz, lehenbiziko aldiz, Behatokiko analisietan Inauteriak txertatu ziren. Pandemiaren iraupena eta eragina zirela eta, hurrengo bi urteetan ez ziren jaiak ospatu, eta Behatokiak jai berdinzaleetarako lehen plana osatu zuen 2020-2021ean; planak barne biltzen zituen 2021-2024 arteko ekintzak.

Horrela, 2022ra heldu gara eta jaiak normaltasunean ospatu dira, ondorioz Behatokiak ere bere analisi lanari ekin dio. **ESKU ARTEAN DUZUN DOKUMENTU HAU 2022KO SAN JOANETAKO JAIEN BURUZKO BERDINTASUN BEHATOKIAREN EMAITZA DA.**

Udal teknikari eta ordezkari politikoei zuzendutako dokumentua da, eta bereziki jaien lanketan eta Behatokiarekin harreman zuzena dutenei: Alkatetza, Jaiak, Kultura, Kirola, Gizarte Zerbitzuak, Musika Eskola eta Komunikazio alorretako zinegotziak eta teknikariak. Ondoren, hemendik ateratako ondorioak<sup>1</sup> jaietan parte hartzen duten elkarteei, herri eragileei, eta oro har, herritarrei ere jakinarazten zaizkie; alde batetik, udal webgunean Berdintasunak duen atalean txostena zintzilikatuta, eta bestetik, horren berri emanez.

Dokumentu honetan Behatokiaren lana bi norabidetan erakusten da: batetik, dagoeneko Tolosako Udalak berdintasunaren alde egiten duen lanari balioa ematen zaio, eta bestetik, lanketa honetan sakontzeko esku-hartze proposamenak azaltzen dira, ikuspegi estrategiko eta praktikoa batetik. Gainera, hartzaile izango diren sailetako teknikariak eta politikariak sensibilizatzeko bokazioa ere badu: gure jaietan emakumeek eta gizonek duten parte-hartzearen inguruan oraindik ematen diren diskriminazio egoerak ezagutzeko, horien inguruan kontzientzia hartzeko eta neurriak hartzeko gaitasun gehiago izan dezaten.

<sup>1</sup> Txosten hau eta orain arte egindakoak Tolosako Udalaren web orrian topatu ditzakezu.

<https://udala.tolosa.eus/eu/zerbitzuak/berdintasuna/programa-eta-proiektuak/jaiak-behatokia-eta-gida/jaiak-behatokia>

Dokumentu honek ondorengo egitura du: lehendabizi, Behatokiak jarraitutako lan-prozedura azaltzen da; ondoren Behatokiak aztertutako lau esparruak lantzen dira (komunikazioa, antolakuntza, egitaraua eta indarkeria sexista); eta azkenik, etorkizunera begira eman beharreko urratsak azaltzen dira, ondorio orokor moduan.

## 2. LAN PROZEDURA

*Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarri dokumentuan* horren funtzionamendu eredua eta tresnak azaltzen dira, eta horietatik abiatuta, beharrezko egokitzapenekin, 2022. urteko lanketa egin da. Bost faseko prozesua izan da.

Hauexek dira 5 faseak eta bakoitzean egindako lanketa:

- Plangintza. Lehendabiziko fase honetan, 2022ko San Joan jaietan aztertuko denaren aurreikuspena egin da.
- Informazioa jaso. Alde batetik, Berdintasuna, Jaiak, Komunikazioa eta Kirol sailei beharrezkoa den dokumentazioaren eskaera egin zaie (aktak, jardueretako partaideen zerrendak, egitaraua, dirulaguntzen fitxak...).
- Analisia. Informazio guztia eskuratu ondoren, analisia egin da.
- Komunikazioa. Ateratako emaitzak, alde batetik, parte hartu duten arlo guztiekin partekatu da, bestetik, udal teknikari eta zinegotzi guztiak gonbidatu ziren sentsibilizazio saio batean azaldu da, eta azkenik, Berdintasun Saileko web orrian herritar guztien eskura jarri da.
- Balorazioa. Parte hartu duten sailekin elkarrizketa bat egin da, jaien inguruan duten balorazioa ezagutzeko eta berdintasunean eman daitezkeen urratsak identifikatu ahal izateko.

Lanketa hau guztia Berdintasun Sailaren eta Farapi Kooperatibaren arteko elkarlanean egin da. Era berean, esan bezala, beste sail batzuek ere parte hartu dute hainbat mailatan: Jaia, Kirol, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Komunikazio Sailekin harremana etengabekoa da.

### 3. NOLA IRAKURRI DOKUMENTU HAU

Txosten honek oso banaketa sinplea eta intuitiboa izateko eraiki dugu. Landutako gai bakoitzak atal bat osatzen du, guztira 4 atal nagusi: Antolakuntza, Komunikazioa, Egitaraua eta Indarkeria. Egitarauan, beste 3 gai biltzen dira: Txupinazoa, Musika eta Kirolak.

Beraz, honela litzateke eskema:

1. Antolakuntza
2. Komunikazioa
3. Egitaraua
  - Txupinazoa
  - Musika
  - Kirolak
4. Indarkeria

Atal bakoitzean egin den azterketa jasotzen da eta, ondoren, eman diren aurrerapenak eta aurrera jarraitzeko proposamenak. Proposamenetan bi motakoak jasotzen dira, aurtengo egoerari erantzuteko sortu direnak eta Behatokiko planetik aukeratu direnak; azken horiek (P) irudiarekin identifikatuta daude.

Amaitzeko, balorazio orokorraren atala egin da.

## 4. ANTOLAKUNTZA

### Sarrera

---

Atal honen helburua Tolosako jaien antolakuntzaren inguruan genero analisisia egitea da. Edozein jardueraren prestakuntzaren eta antolakuntzaren esparruan eragiteko alderdi klabeak dira, hor baitago erabaki ahalmena. Zentzu horretan, batetik, udal eragileak daude (Jaiak eta Kirol Sailak, maila politiko eta teknikoan, eta Alkatetza), eta bestetik, herri eragileen ordezkari batzuk eta hainbat herritar.

Aurten atal honen barruan Jai bileren azterketa kuantitatiboa ez da egin, hain zuzen ere jai bilera bakarra egin zelako jaiak antolatzeko, eta data horretan Behatokiko inor ezin izan zen bertaratu. Ondorioz, 2018an eta 2019an ez bezala, aurten ez da txosten honetan atal hori egongo.

### Udal antolakuntza

---

Jaien antolakuntza eta kudeaketarako egitarau propioa du Tolosako Udalak, eta lan hori aurrera eramateko, Jaiak ataleko teknikari koordinatzailea eta laguntzailea daude. Horrez gain, beste sail batzuk ere inplikatzen dira (Kultura, Kirolak, Udaltzaingoa, Berdintasuna, Komunikazioa...) eta horien arteko koordinazioa ematen da.

Jaien arloan teknikari bakarra dago, eta gizonezkoa da. Horrez gain, arloan administrazio laguntzaile bat dago, gizonezkoa berau ere. Horiek ez dute berdintasun gaietan berariazko prestakuntzarik jaso, hala ere, teknikaria urteen poderioz jaien alorrean jaien eta generoaren inguruko jakintza eskuratzen joan da. 2014-2015 urteetan, koordinatzaileak jaietan berdintasuna sustatzeko prozesuan parte hartu zuen; ondoren, Behatokitik egindako lanketetan haiekin elkarlana landu eta gauzatu da. Behatokiaren lanketa aurrera joan ahala, jaietako teknikari arduradunei emaitzak aurkeztea eta kontzientziak lantzen jarraitzea lehentasunezkoa izan da. Prestakuntza ematekotan, ahalik eta espezifikoa eta aplikatuena izan beharko litzateke, orain arteko eskarmentua kontuan hartuz.

Beste alorrekin gertatzen den bezala, berdintasuna zeharkako gai moduan sistematikoki txertatzeko urratsak eman diren arren, oraindik erroka handiak gelditzen dira. Batez ere, sailok berdintasunaren gaia beraien ardura ere badela kontzientzia hartzeko, eta horrenbestez, politika publikoak ikuspegi horren arabera diseinatu, exekutatu eta ebaluatzeko.

**Jaiak eta Berdintasun Sailen artean koordinazioa egonkortzen doa**, eta horri esker, Jaiak Sailaren jardunean **berdintasun ikuspegia gero eta presenteago dago: aurrenetako urteetako esku-hartzeak mantendu eta urtero esparru berriak irekitzen dira. Bi sailen arteko harremanaren sistematizazioa litzateke egungo erroka nagusia**, edo anbizio gehiago izanez gero, Behatokia bi arloen ardura izatea, hau da, bien agendan eta zereginetan modu berean egotea.

Edozein eraldaketa emateko eta mantentzeko, bultzada politikoa lehentasunezkoa da. Tolosa erreferente bihurtu da maila horretan, eta gobernuan alderdi desberdinak egon arren, berdintasunaren aldeko apustua mantendu da, baita Behatoki honi dagokionez ere. Alor horretan, Kultura zinegotzia da eskumen gehien duena, alkatearekin batera. Biak ala biak emakumeak dira. Gainera, Jai Bileretan, gobernuko eta oposizioko kideak daude, orokorrean, emakumeen partaidetza maila altuagoarekin.



2017tik behatokiko gomendioak jarraituz, **urtero jaien eta berdintasunaren inguruko sentsibilizazio, prestakuntza eta informazio saio bat egiten da** udal zinegotzi (gobernuko ei eta oposiziokoei) eta **teknikari guztientzat**.

## Jai bilerak

Jai bilerak udal arduradun politikoen eta teknikarien eta herritarren arteko elkarguneak dira, jaien inguruan hitz egiteko. Jaien aurretik prestaketa lanak egiteko eta jaien ondoren, balorazioa egiteko biltzen dira. Aurten ez da jai bileretako behaketarik egin, hain zuzen ere, jai bilera bakarria egin delako, eta Behatokiak ezin izan du data horretan behaketarik burutu. Hala ere, atal honetan beste urteetan bezala espazio horretako beste gai batzuk aztertuko dira.

Jai Bilerak jaien inguruan hausnartzeko eta berdintasunaren aldeko berrikuntzak proposatzeko espazio egokiak izan daitezke, baina praktikan, Jai Bileretan, gehienetan gertatzen den bezala, aurreko urteko gaiak eta dinamikak errepikatze joera dago (egitaraua, lan banaketa...).

Jaiak antolatzeko jai bilera bakarria egon da. Bilera horretan 7 lagunek parte hartu dute; 3 emakumezko eta 4 gizonezko<sup>2</sup>. Beraz, **kuantitatiboki ordezkartza parekidea izan da**.

	Emakumeak	Gizonak	Ez binarioak
<b>GUZTIRA</b>	3	4	0

**Jaien antolakuntzarako bilera horretan ez zen Jai berdinzaleetarako gida banatu, ezta indarkeriaren gaia landu ere.**


**Jai bilera bakarria egon arren, jaiak antolatzeko hainbat bilera monografiko antolatu ziren:** eskopetariaren kapitainekin 4 bilera, txosnagunekoekin bilera bat, erraldoiekin bilera bat, prebentzio mahaia, kuadrillekin bilerak, segizioaren antolakuntzarako bilera, helduen eguna antolatzeko bilera eta bestelako bilera monografiko gehiago. Behatokiak ez du aukerarik izan bilera monografiko horietan parte hartzeko; beraz, datuak teknikariak emandakoak dira.

Datuei erreparatzen badiegu (beheko taulan eta grafikoan), konturatzen gara **bilera monografiko horietan gizonezkoak gehiago (% 67)** izan direla. Egoera hori zuzentzeko gomendioak eman baziren ere, eragileen aldetik, dirudienez, ez dira edo ezin izan dira aurrera eramane.

<sup>2</sup> Ez dago bileraren erregistrorik, ezta aktarik ere. Ondorioz ez dakigu zer eragilek edo ordezkariak parte hartu zuten.

	Emakumeak	Gizonak	Ez binarioak
Eskopetarien kapitainekin bilera (4 bilera)	2 (x4)	13 (x4)	
Txosnagunekoekin bilera		2	
Erraldoiekin bilera	1		
Prebentzio mahaia (2 bilera)	3 (x2)	1 (x2)	
Kuadrillekin bilerak (2 bilera)	6 (x2)	2 (x2)	
Segizioaren antolakuntzarako bilera (2 bilera)	3 (x2)	3 (x2)	
Helduen eguna antolatzeko bilera (2 bilera)		1 (x2)	
<b>GUZTIRA</b>	<b>33</b>	<b>68</b>	<b>0</b>

Jaiak antolatzeko bilera monografikoetan izandako parte-hartzea sexuaren arabera



Jaien ostean **Jaietako balorazio bilera** egin da, urtero bezala. Balorazio bilera horretan guztira 9 lagunek parte hartu zuten; 4 emakume eta 5 gizon. Ondoko taulan bertaratu ziren eragileak:

Ordezkatzen duen eragilea	Emakumeak	Gizonak	Ez binarioak
Eskopetarien kapitainak		2	
EAJ-PNVko zinegotziak	1	1	
EH Bilduko zinegotziak		1	
Bizilagun bat	1		
Diario Vascoko kazetaria	1		
Udal teknikariak	1	1	
<b>GUZTIRA</b>	<b>4</b>	<b>5</b>	

**Datua parekidea den arren, bi gai** kontuan hartzea interesantea litzateke; alde batetik, Diario Vascoko ordezkaria **kazetari lanak** egitera joan zen bilerara, eta bestetik, jaien antolakuntzan aritzen den **eragile bakarra** bertaratu zen, gehi **bizilagun bat**. Beste guztiak **udal langileak eta zinegotziak** izan ziren.

Bilera horretan<sup>3</sup>, behatokiaren gaiari dagokionez, emakumeen parte-hartzearen handitzea azpimarratu zen eta **Bordon-dantzarien** dantzan lehenbiziko aldiz **emakume kapitain bat** egon zen. Horretaz gain, **Prozesioko Aguazila ere lehenbiziko aldiz emakumezkoa** izan zen.

Bestalde, balorazio bileran, **Berdintasun teknikariaren eskutik, indarkeriaren gaia** eta burututako sentsibilizazio kanpainaren inguruan galdetu eta lanketa egin zen. Bide batez, gaiaren inguruko iritzi eta balorazio trukaketak egon ziren. Gai horren inguruan Berdintasun teknikariak honako balorazioa azpimarratu du: "*indarkeria matxistaren aurkako kanpaina nola ikusi zuten galdetuta, eskopetari batek ondorengo adierazi zuen: "Todo lo que se haga es poco"*. Hala ere, egindako lanarekin ados zeuden.

Jai bilerak edozein herritarri eta eragileri irekiak dira; ondorioz, deialdi zabala egiten da, bai herriko hedabideetan, bai zuzenean eragileei. Bileretako deialdiak Jaiak Saitetik egiten dira, aurreko urteetan bileretan parte hartu dutenei eta jaietan parte hartzen duten elkarte guztiei emailaz gonbidatzen zaie. Lehenengo Jai Bilera eta Balorazio Bileraren deialdia udal web orriaren bitartez ere egiten da, eta prentsa ohar bat bidaltzen da Tolosako hedabideei.

Gaia dela eta, aipatu behar da, Berdintasun arlotik, Tolosako Asanblada Feministari, batukadako ordezkariari eta berdintasun dirulaguntzak eskatu zuten elkarte guztiei whatsapparen bitartez jai bilera irekirako deialdia eta gonbidapena zabaldu zitzaizela. Oso positiboa da saiakera hori, eta nahiz eta ez duen zuzeneko eraginik, urtero sistematizatuz,

<sup>3</sup> <https://www.diariovasco.com/tolosa-goierrri/tolosa/juan-crece-ritmo-imparable-tolosa-20220717205516-ntvo.html>

emakume horiei komunikazioa heltzen zaiela bermatzen da, eta etorkizunean beraien partaidetza haztea eragin lezake.

Bilerak astean zehar arratsaldeko 19:30etik 21:00etara izaten dira gutxi gora-behera, Kultur Etxean. Kontuan izan behar dugu bileraren lekua eta orduak parte hartuko duten herri eragileek eta horien profilak baldintzatuko dutela. Adibidez, gazteek edo jubilatuek errazago izango dute parte hartzea, haurrak edo menpekoak haien kargu dituzten pertsonen baino. Oztopo hori ekiditeko, bileretan, hartzaindegi zerbitzua eskaini daiteke edo ordutegiak beste herritar profil batzuei ere egokitu, edo antzeko proposamenak.

San Joanak antolatzeke udaletik deitu diren **Jai bileretan oso eragile eta herritar gutxiak parte hartzen dutela esan daiteke**. Hau da, **jaiak ez dira, dirudienez, amankomuna den espazio batean antolatu**, beraz, **espazio horrek berdintasuna bultzatzeko izan dezakeen gaitasuna zalantzan jar daiteke**. Ondorioz, **datozen urteetan honelako antolaketa ereduarekin jarraitzeko asmoa badago, jaiak antolatzeke balio duten espazioak identifikatzea komeniko litzateke eta horietan eragiteko mekanismoak pentsatu beharko dira**.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Ondorengo lerroetan, antolakuntzaren atalari dagokion balorazioa egingo da. Eduki horiek aurreneko ataletan ere aipatu dira, baina atal honetan, era eskematiko batean azaltzen dira. Batetik, aurrera emandako urratsak nabarmendu nahi dira; eta bestetik, etorkizuneko esku-hartze plangintza diseinatzeko proposamenak egin nahi dira, Behatokiaren etengabeko hobekuntza filosofiaren baitan.

### Aurrerapenak

- Jaien antolakuntzan, maila politikoan, emakumeen presentzia altua da, baina berdintasun gaietan prestakuntza minimoa dute.
- Jaiak eta Berdintasun Sailen arteko koordinazioa minimoa da.
- Berdintasun teknikaria Jaietako balorazio bilerara joan da eta berdintasunaren eta indarkeriaren gaiak plazaratzen direla bermatu du.
- Behatokiaren emaitzak eta gaiaren inguruko kontzientziario eta prestakuntza saioa emango dira maila politiko eta teknikoan.

### Proposamenak

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerarekin erlazionatutakoak dira, hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>4</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuak).

<sup>4</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

- Jaiak Sailaren eta Behatokiaren arteko komunikazioa hobetu, Behatokia jai bileretan edo jaiak antolatzeko dauden espazioetan egongo dela bermatzeko.
- Jai bileretan edo jaiak antolatzeko edozein espaziotan berdintasun politiken berri ematen dela ziurtatu: "Jaiak berdinzaleak egiteko gida" banatu (online edo fisikoki), eta eraso matxisten kontrako protokoloaren eta Behatokiaren berri eman. (P)<sup>5</sup>
- Indarkeria matxistari aurre egiteko gaia bileren gai ordenan txertatu sistematikoki. Gai hori lantzeko beharko balitz teknikariari prestakuntza eman. (P)<sup>6</sup>
- Behatokiaren emaitzak aurkeztu jaien antolakuntzan dabilzan eragileei (jai bileren bitartez edo beste espazio formaletan), gaiaren inguruko kontzientziazioan sakontzeko.
- Jaiak antolatzeko bileretara ordezkariak bidaltzen dituzten elkarteei ordezkariak parekidea bidal dezaten gomendatu bilera deialdi bakoitzean. (P)<sup>7</sup>
- Udal barruan eta kanpoan sinergia berriak bilatu. (P)<sup>8</sup>
- Gero eta Jai bilera gutxiago egiten dira, aldiz gero eta monografiko gehiago; beraz, berdintasunaren ikuspegitik eragiteko gaitasuna handitze aldera, ongi legoke jaien antolakuntzaren inguruko hausnarketa egitea non eta nola eragin behar den identifikatzeko eta erabakitzeko.

---

<sup>5</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 Arloa; Helburua 2.1.3 D (11. orria)

<sup>6</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 Arloa; Helburua 2.1.2 B (11. orria)

<sup>7</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 Arloa; Helburua 2.1.1 B (10. orria)

<sup>8</sup> Planean jasota: 1. Ardatza: *Behatokiaren eginkizunak eta antolakuntza modu sistematizatu batean garatu*; 1.2 Arloa; Helburua 1.2.4 B (9. orria)

## 5. KOMUNIKAZIOA

### Sarrera

Komunikazioak berebiziko garrantzia du jaien inguruan transmititzen den irudian. Irudi hori jaien inguruan dugun ikuskerak baldintzatuko du, eta era berean, neurri kontzienterik jarri ezean, emakumeen eta gizonen artean ematen diren desberdintasunak erreproduzituko dira. Irudi, mezu eta hizkuntza berdinzaleak eta eraldatzaileak erabiltzean, ordea, ikuskera berriak sortzen dira, eta horiek eragin zuzena dute jaiak bizitzeko izango dugun eran.

Atal honetan analisi dokumentala egin da, testu eta irudien azterketa, alegia. Kartela, egitaraua, prentsa oharrak eta udalaren agerraldi publikoak aztertu dira, baita twitter, facebook eta udal webgunea ere.

### Kartela

Kartela jaien inguruko irudi grafiko nagusia da, eta jaien erreferente bisual bihurtzen da. Kartelaren aukeraketaren atzean jaien inguruan eman nahi den irudia dago, eta horregatik, berdintasuna bermatzea beharrezkoa da.

2022ko San Joan jaietako kartela San Joanetako hainbat irudi esanguratsuek osatzen dute: erraldoiak, eskopetariak eta txirulajoleak, Bordon-dantzariak, danbor-joleak eta buru-handiak. Denak, gizaki itsura izan arren marrazkiekin irudikatuta daude. Fondoan Tolosako Zerkausiko arkuak agertzen dira. Kartelaren behealdean "SanJoanak Tolosa 2022" leloa agertzen da.

#### **Kartela parekidea dela esan daiteke?**

Parekidea izateko, gizakiak agertzen diren irudietan emakume eta gizon kopurua berdina izatea eskatzen da (% 50-% 50 edo % 60-% 40).

**Kasu honetan zaila da hori baieztatzea,** agertzen diren irudietako batzuk argi lotu daitezke feminitatearekin edo maskulinitatearekin eta ondorioz egilearen intenzionalitatea ezagutu, beste batzuk, aldiz, zalantza sortu dezakete, hala nola, eskopetariak eta txirulajolea.

#### **Kartelak iruditeria ez sexistaren irizpide minimoak betetzen ditu?**

Hau da, emakumeen eta gizonen arteko irudiak tamainan, garrantzian, altueran berdinak izatea edo kaltetan emakumearen irudiaren alde egitea (azken irizpide hori, urteetan egon diren desorekak orekatze aldera egiten da). Ildo honetan, kartelaren zentralitatea Bordon-dantzariak eta danbor-joleak dutela esan daiteke, hala ere,



**Sanjoanak Tolosa 2022**  
ekainak 23-26

proporzionaltasunari dagokionez, erraldoien artean irudi feminizatuak eta maskulinizatuak tamaina bera dute. Bestalde, **irudi batzuei ezin genero argi bat egoztea positibotzat joko dugu; hala ere, ez dago argi intentzionalitate horrekin eginda dauden edo ez.**

**Genero ikuspegiak hitz egiteko orduan, kartela Tolosako San Joanak erabiltzen dituen irudiengatik baldintzatuta zegoela esan dezakegu;** hau da, erraldoien errealitatea oso heteronormatiboa da eta buruhandien kasuan gehienak gizonezkoak irudikatzen dituzte. Hala ere, kasu horiei dagokienez, eta "errealitatea" erakutsi nahi bada, posible da beste irudi batzuk aukeratzea, hala nola, feminizatutakoak. Bestalde, San Joanak, beste herrietan bezala, gure gizartearen isla dira, hau da, gizarte binario bat (gizon-emakume); beraz, **jaiak fideltasuna oinarri hartuz irudikatu nahi direnean, estereotipoak birsortzera jotzen dugu, jaietako errepresentazioak hori bera adierazten digulako.**

**Kartela** lehiaketa bitartez aukeratzen da. Lehiaketako oinarrietan ondorengo klausulak azaltzen dira: epaimahaian ordezkariak parekatua bermatuko da (10. art.) eta "generoaren irudikapenean erabiliko diren irudiek oreka bilatuko dute, rol eta estereotipo tradizionalak azpimarratu gabe, eta sexu, arraza, adin, kultura edo sexu-aukeren arloan desberdintasunen tratamendu gutxiesgarria ekidinez" (11. art). Oinarri horiek indarrean daude duela urte batzuetatik hona, eta dagoeneko inork ez ditu zalantzan jartzen.

Kartel lehiaketaren epaimahaia, parekidea izan da, 2 emakumek eta 2 gizonek osatu dute, laurak diseinuan eskarmentu handikoak. Gainera, berdintasun teknikariek parte hartu dute lehenengo galbahean, azkenengo urteetan bezala. Lan egiteko modu hori gaur egun egonkortuta dago eta jaietako antolakuntzaren sistemaren barruan txertatuta dagoela esan daiteke.

Kartel lehiaketan 50 karteak hartu dute parte. Partaidetza anonimoa izan arren, **20 emakumeen artelanak eta 30 gizonen artelanak aurkeztu dira**<sup>9</sup>. 2022ko irabazlea **Enrique Diaz Nuñez** izan da.

## Egitarauaren eskuorria

**Alderdi honetan hizkuntza, irudi eta eduki ez sexista eta ez homofoboaren presentzia bermatzean jartzen da bereziki arreta.**

Egitarauari dagokionez, azken urteetako tradizioari jarraiki, **Berdintasun Sailak egitarauaren azterketa egin du hasieratik.**

**Hizkuntza ez sexista** bermatzeari dagokionez, nabari da Komunikazio Sailean gai honekiko gero eta kontzientziario handiagoa dagoela, eta **gai hau barneratuta dagoela** esan daiteke.

**Berdintasun Sailak** egitarauan erabiltzen diren **argazkien inguruko** analisia egin ondoren, **programa orekatuta zegoela** ebatzi zuen, eta Jaiak Saila zoriandu zuen. Dena den, emakumeen eta gizonen irudiez gain, irudikatzen denari ere arreta jartzen zaio: zein roletan dauden edota irudikatzen den jarduerak zein genero kutsu duen, besteak beste.

Bestalde, **jaiak berdintasunean bizitzearen aldeko mezuek helaraz eta udala norabide horretan egiten ari den lana erakuts daitezke publikatzen diren idatzizko euskarrien bitartez.** Egitarauko alkatearen agurrean, "*Ospatu ditzagun jaiak errespetuan eta modu berdinzalean*" esaldiek Agurra ixten dute. Alkatearen agur horretan ez da aipamenik egiten

<sup>9</sup> Egile beraren izenpean artelan bat baino gehiago aurkeztu dira. Beraz, 50 artelanean artean 20 emakumezko aurkeztu dira eta 30 gizonezko. Horrek ez du esan nahi 50 egile ezberdin aurkeztu direnik.

jaietan eraso sexistak gaitzestearen inguruan, baina “Gogoan izan” atal bat dago non, aurreko urteetan bezalaxe, “Tolosak, EZETZ dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano eta #LIBRENonah” kanpainaren berri ematen den eta Udaltzaingoaren telefonoa azaltzen den. Horretaz gain, programaren “Oharrak” atalean “Tolosak, ezetz” kanpainaren logoa agertzen da.




## Prentsa oharrak, sare sozialak eta hedabideak

**Aurtengo San Joanetan udaletik egin diren prentsa oharretan eta hedabideei eskura jarri zaien informazioan berdintasunak garrantzia izan duela esan daiteke.**

Udal webgunean, Twitter-en eta Aleka Udal aldizkarian, San Joanetan eman diren berdintasunaren aldeko aurrerapenak azpimarratu dira eta horren inguruko informazioa eman da.

Sare sozialei dagokienez, erabili den hizkuntza eta iruditeria momentu oro zainduta egon da eta emakumeak ikusarazteari garrantzia eman diote, adibidez, emakumeen izen abizenak plazaratuz, emakumeen irudiak ikusaraziz, emakumeen irudiei protagonismoa emanez eta berdintasunaren alde, jaietan eta jai egunetan, egindako ekintzak argitaratuz.





Bestalde, 2022ko maiatzeko **Alekak** (12. zk.)<sup>10</sup> jaietako behatokiak eraiki duen planaren aurkezpenaren berri eman zuen (4. eta 5. or).



Honekin batera, **Tolosako Atariak Ekainean** “*Emakumeak elkarteetara bidean*”. Artikulua eta ekimen horren helburua Tolosako emakumeak edo emakumeen parte hartzearen aldeko ekimenak bisibilizatzea da<sup>11</sup>. Kasu honetan azkenengo urteetan Gure Kaiolan sartutako lehenbiziko emakumea elkarrizketatu dute: Cristina Tolosa.



**Udal webgunean**<sup>12</sup> eta **Udal agendan**<sup>13</sup> ere jaien berri eman da eta berdintasunari arreta jarri zaio.

<sup>10</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/ALEKA\\_12%20%286%29.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/ALEKA_12%20%286%29.pdf)

<sup>11</sup> 2018an adibidez, **Izarne Iglesias eta Mirari Martin** musikariak elkarrizketatuak izan ziren.

<sup>12</sup> <https://udala.tolosa.eus/eu/berriak/kultura-gazteria-jaiak/bueltan-dira-san-joan-jaiak-bi-urteren-ondoren>

<sup>13</sup> <https://agenda.tolosa.eus/es/evento/sanjoanak-2022-e5486>

## Udaleko agerraldiak

**Udalak**, duela urte batzuk hona, publikoki egiten dituen agerraldietan, hala nola, San Joanetako jaien berri emateko, **irudi berdinzalea edo parekidea bermatzen du**. Hau da, maila honetan, genero berdintasunaren aldeko jarrera erakusteko oso garrantzitsua da ordezkartzan emakumeak egotea.

Tolosako 2022ko San Joan jaien berri emateko egin zen agerraldian 6 lagunek parte hartu zuten, 4 emakumek eta 2 gizonek:

- Olatz Peon, alkatea.
- Izarne Iglesias Garcia de Iturrospe, Kultura eta Jaietako zinegotzia.
- Mireia Gonzalez, Udaberriko dantza taldeko.
- Miren Nazabal, Udaberri dantza taldeko eta kuadrilla eguneko koordinatzailea.
- Juan Bautista Aranzabe, Helduen Eguneko ordezkaria
- Jon Garmendia, Udal txistulari bandako ordezkaria.

**Ez zen irudi parekiderik eman baina bai berdinzalea**, azken bi urteetan bezala. Ez da ohikoa emakumezkoei momentu ohoretsu batean protagonismoa eskuratzeko aukera ematea, baina azkenaldian horrelako egoerak gero eta gehiago ikusten ari gara hainbat eremuetan.



Agerraldian, Jaietako egitarauaren berri emateaz gain **Jai berdinzaleen Behatokiaren planaren berri eman zen** eta, horretaz gain, **Indarkeria matxistaren kontrako mezu argiak** helarazi zituen alkateak: *"Jaiak era baketsu, alai eta parte hartzailean bizi nahi ditugu, errespetuan eta berdintasunean oinarrituta. Tolosak ez dituelako eraso sexistak onartzen ezta onartuko. Ez dugu iraganean gertatutakoak errepikatzerik nahi, erasotzaileak ez dira ongi etorriak gure herrian eta irmoki erantzungo diegu. Tolosak jai berdinzaleak nahi dituelako, emakumeak aske sentitzen garen jaiak nahi ditugu"*, eta udalaren indarkeria sexistaren kanpainaren berri eman zen. Honekin batera, agerraldian eta argazki publikoan **#Joka Sano** kartelarekin agertu ziren.

Agerraldi honen berri Tolosako hainbat hedabidek eman zuten; besteak beste, [Atariak](#), [28 Kanalak Diario Vascok](#) eta [Noticiasek](#). Denek berdintasunaren aldeko informazio guztia eman zuten, baita azpimarratu ere.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Komunikazioaren atalean udalak irudi, mezu eta eduki sexisten kontra hartutako neurri eta irizpide orokorrak islatzen dira, eta beraz, gai honetan Tolosak badu dagoeneko urteetako ibilbidea. Hala ere, urtez urte neurriok mantentzen direla eta identifikatutako hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da. Horretarako, ondorengo eskema proposatzen dugu: egindako lanaren garrantzia nabarmendu, erronka berriei heltzeko, alegia.

### Aurrerapenak

- Dagoeneko kartel lehiaketako epaimahaia parekidea izatea sistematizatuta eta barneratuta dago. Halaber, berdintasun teknikariak lehenengo galbahean parte hartzen du aholkulari moduan.
- Komunikazio Sailean iruditegi eta hizkuntza ez sexista irizpideen arabera lan egitea barneratuta dute.
- Egitarauan indarkeria sexistaren kontrako sentsibilizazio kanpaina agertzen da, urtero bezala.
- Egitarauan hizkuntza eta iruditegi ez sexistaren irizpideak barneratuta daudela ikusten da. Berdintasun, Jaiak eta Komunikazio Saileen arteko aurretiazko komunikazioa sistematizatuta dago.
- Sare sozialetan, udal web gunean eta herriko hedabideetan berdintasunaren inguruko aurrerapausoen berri eman da.
- Azkenengo urteetan bezala, Alekan jaietako Behatokiaren berri eman zuten, kasu honetan Behatokitik egindako Jaietarako berdintasun plana aurkeztu zen.
- Udal agerraldian emakumeen presentzia handitu da, alor bakoitzetik emakume ordezkari bat egon da. Aldi berean, agerraldi osoan zehar eta ahots ezberdinetatik berdintasunaren alde eta eraso sexisten kontrako mezuak bidali dira.

### Proposamenak

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Plan](#)ean<sup>14</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Urtero behatokiaren jarduna eta aurreneko urteetan ateratako ondorioren bat programan modu motz batean jartzea.

<sup>14</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

- San Joanetan, Inauterietan bezala, indarkeriaren eta berdintasunaren aldeko sentsibilizazio bideo bat ateratzea.
- Festetako euskarri komunikatiboetan erabiltzen den iruditegian genero rolak hausten dituzten irudiak erabili. Hau da, festetako jarduera maskulinizatueta emakumeen irudiei lehentasuna eman (adibidez, gaueko kontzertuetako emakume musikariak, suan salto egiten, kirolean...) eta jarduera feminizatueta gizonen irudiak sartzea (hurrekin, ekintza feminizatueta...) emakumeen aniztasunaren aldeko irizpideak ahaztu gabe (adina, jatorria eta abar). Halaber, helburua da gai honetan egon daitezkeen beste genero adierazpenei (ez bitarrak) lekua ematea. (P)<sup>15</sup>
- Udaletik euskarri bat sortu (albuma, bideoa, panela...) Tolosako jaietako eragileek azken urteetan jaiak berdinzaleagoak izateko egin dituzten ekintzak jasotzen dituena. (P)<sup>16</sup>

---

<sup>15</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*; 3.1 Arloa; helburua 3.1.3 B (14. orria)

<sup>16</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*; 3.3 Arloa; helburua 3.3.2 A (15. orria)

## 6. EGITARAUA

### Sarrera

Jaietan zer programatzen dugun genero ikuspegitik aztertzea oinarrizkoa da Behatokiarentzako; izan ere, zer nolako jaiak egiten ditugun erakustez gain, zer nolako jaiak nahiko genituzkeen galdetzea planteatzen digu. 2022. urteko San Joan jaietako **txupinazoa**, **musika** eta **kirol ekintzak** aztertu dira.

### Txupinazoa

#### Txupinazoa eta bere izendapena

Txupinazoa ohorezko ekintza moduan kategorizatzen da, herriak sinbolikoki herrikide bat/talde bat omentzen duelako horrek egindako lanagatik. Kasu honetan, **Katixa Perea**, Kultur Etxeko dantza tailerreko ballet irakaslea omendu zen, aurtan 25 urte egin baititu dantza ikastaroak, eta beraz, urte luzez egindako lana eskertzeko hautatu zuen udalak.



Txupinazoa zeinek jaurtiko zuen udalak erabaki zuen 2018. urtetik txupinazoa aukeratzeko indarrean dauden udaleko berdintasun irizpideei jarraituz. Jai bileran informazioa helarazteaz gain, jai bileraren oniritzia jaso zuen.

## Txupinazoaren momentua eta diskurtsoa

Jaien hasiera honetan zirrara eta poztasun handiko momentuak bizi dira. Espazio eta denbora berean bertan batzen diren herrikideak, elkarrekin, momentu intimo, identitario eta ospakizunekoak partekatzen dute. Talde kohesioaren ikuspegitik, momentu gorenak izaten dira.

Esan bezala, txupinazoa Katixa Preak bota zuen, berak ordezkatu zuen bere burua balkoian. Katixarekin batera alkatea eta zinegotzi batzuk egon ziren.

Jaien testuinguruan, hitza publikoki hartzearen ekintzak balio sinboliko handia du. Diskurtsoa ez da beti botatzen, baina egiteko aukera dago. Omendua <sup>17</sup> herritarrei zuzendu zitzaion, diskurtsoa motza izan arren **dantzaren maitaleei eta berdintasunari egin zien erreferentzia** “*ospatu ditzagun jai hauek alai, errespetuz eta berdintasunean*”. Ondoren, suziria piztu zuen eta jaiari, ofizialki, hasiera eman zitzaion.



Ikusleei dagokienez, ehunka lagun bildu ziren. Gehienak nerabeak, gazteak eta familiak izan ziren. Jarrera aktiboa eta alaia izan zuten, jai giroan ohikoa den moduan.

Txupinazoa amaitutakoan, **erraldoiak eta buruhandiak sartu ziren plazara**, ohikoa den moduan. Erraldoiak **3 gizon-emakume bikote dira**, eta bikoteka dantza egiten dute, bikote eredu heterosexuala irudikatuz. Buruhandiak gizonak irudikatzen dituzte, eta gehienetan gizonetzkoak izaten dira rol hau betetzen duten gazteak. Dultzaineroak gizonak izan ziren.

## Aurrekontua

Aurrekontuari dagokionez, oso aurrekontu baxua duen jarduera da, eta “gastu orokorrak” partidan sartzen da.

<sup>17</sup> <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/75-herriak/tolosa/11354-hasi-dira-san-joan-jaiak>

## Ondorioak berdintasunaren ikuspegitik

**Berdintasunaren ikuspegitik Txupinazoa botatzeko aukeratutako pertsonaren atzean egon diren argudioak oso egokiak dira:** “25 urte betetzen ditu udaletxeko Ballet dantza eskolak, emakumeak izan dira aitzindariak; Katixa bera izan da aitzindaria, ekintza sustatu zuena [...] esan gendun, berak behar du izan!”<sup>18</sup>. Kultura zinegotziak 28 Kanalari argi utzi zion bezala, emakume aitzindari bat omendu nahi izan da eta horrekin bere lana aitortu. Pausu horiek oso esanguratsuak dira, hain zuzen ere, berak aipatu duen bezala, dantza feminizatuta dagoen espazio bat da eta horri ohorezko espazio bat ematea emakumeak nagusi diren gauzei zentraltasuna ematea da. Katixak berak onartu zuen bezala “urte luzez egindako lanaren aitortza da” (Ataria)<sup>19</sup>

## Aurreko urteekin alderatuz

Dagoeneko, 2018ko San Joanen ostean, adostu zen bezala, Txupinazoa botako duen pertsonaren edo eragilearen aukeraketarako **irizpide** batzuk indarrean daude.

Dagoen zor historikoa orekatzeko helburuarekin urtero emakumeak txupinazoa botatzeak izango du lehentasuna (zorria orekatu arte, behintzat). Hori bermatzerik ez badago, ondorengo irizpideek izango dute lehentasuna beren hurrenkeraren arabera:

1. Talde edo kolektibo mistoa izatea.
2. Bi generoak bermatuta egotea; hau da, txupinazoa bi elkarte edo kolektibok botatzea adibidez gimnasia erritmikoko taldea (denak neskak dira) eta txistulariak (denak gizonezkoak dira)
3. Alternatiboa. Hau da, aurreko irizpideak bermatu ezin badira, eta gizon talde edo kolektibo batek botako balu txupina, hurrengo 2 urteetan emakumezko talde edo kolektibo batek bota beharko luke.

Txupina gizonezkoek osatutako talde edo kolektibo batek botako balu, berdintasunari keinu bat egitea eskatuko zaio: hala nola, indarkeriaren kontrako bandera bat edo pegatinak eramatea; hitza hartuz gero, berdintasunaren aldeko mezuak botatzea...

Beraz, **irizpide horiekin parekidetasuna eta berdintasuna bermatzen dela ziurtatzen da.** Beraz, irizpideak indarrean daudenetik hauek izan dira txupinazoa bota dituztenak:

- 2019an, Udal Txistularien Banda. Denak gizonak.
- 2022an, Katixa Perea, Ballet irakaslea.

<sup>18</sup> <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/75-herriak/tolosa/11354-hasi-dira-san-joan-jaiak>

<sup>19</sup> <https://ataria.eus/tolosa/1656005809714-tolosako-san-joan-festak-2022-txupinazoa-katixa-perea>

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Txupinazoa aztertzea jaietako eremu oso esanguratsuan fokua jartzea suposatzen du. Dagoeneko txupinazoan berdintasuna bermatzeko tresna diseinatu, adostu eta aplikatzen da. Horrek jaietan eragina izan duela ezin da ukatu; hala ere, urtez urte eraginkortasun maila mantentzen dela eta hutsuneei aurre egiteko berriak integratzen direla bermatu behar da.

### *Aurrerapenak txupinazoan*

- Aurtengo txupinazoan, Behatokiari dagokionez, berdintasun irizpideak bete dira. Txupinazoa emakume batek bota du eta ekintza feminizatu batek (balleta) ohorezko posizioa izan du jaietan.
- Pregoian jaiak berdintasunez bizitzeko eta indarkeriaren kontrako aipua egin da.
- Publikoaren jarrera aktiboa izan da eta ez da genero desberdintasunik nabarmendu hauen rolen eta jarreraren artean.

### *Proposamenak txupinazoan*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>20</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Txupinazoaren aukeraketarako irizpideak jaien antolakuntzan ibiltzen diren eragileekin partekatu. (P)<sup>21</sup>
- Txupinazoaren ondoren jo behar duen edozein musika talde, dultzaina edo txistulari banda edo taldetan gutxienez emakume bat egotea interesgarria litzateke.
- Azkenik, aipatzekoa da erraldoiek eta buruhandiek irudikatzen duten eredu heterozentrista eta maskulinoa. Hemen ere, eraldaketa txikien bitartez eredu aske eta berdinzaleagoak erakusteko apustua egin daiteke: erraldoi mutilak elkarrekin nahastuta dantzatzea, edo emakumezko buruhandiak sortzea, besteak beste.

<sup>20</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>21</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: K Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz; 2.1 Arloa; helburua 2.1.2 A (13. orria)



## Musika

---

### Sarrera / Metodologia

Nagusiki analisi kuantitatiboa da, egitarauan eta udaleko Jaiak eta Berdintasun Departamentuak emandako datuetan oinarrituta. Datu horiek osatu eta hausnarketa aberasteko helburuarekin, musikaren eta taldeen inguruko informazioa, Facebook, YouTube, eta bestelako sare sozialak arakatu dira.

Azterketa sakonagoa egin ahal izateko, datu kuantitatiboetatik haratago joan beharko genuke, datuon atzean dauden diskurtsoak ezagutzuz, eta errealitatearen ikuspegi holistikoago bat jasoz. Nahiz eta lan hori ez dugun egin, hurrengo lerroetan musika jarduerak eta generoaren harremanaren inguruko hausnarketa batzuk azalduko ditugu.

Horretaz gain, 2022ko musika analisi kuantitatiboan zer irizpide jarraitu ditugun argitu nahi dugu:

- Egitarauan agertzen diren jarduera musikal guztiak kontuan hartu ditugu, adibidez, txistularien kalejira egunean bi aldiz programatu bada, bi ekintza ezberdin bezala zenbatu ditugu.
- Emakume bakarlariekin kasuan, bakarrik bakarlaria izan dugu hizpide. Hau da, emakume bakarlariekin doazen bandak ez ditugu kuantifikatu. Hala egitea baloratu da, alde batetik bakarlari hauek ikusarazteko, eta bestalde, egiten duten lana aitortzeko (konposatu, banda zuzendu eta abar). Gizon bakarlariekin kasuan gauza bera egin dugu, datuak ez desbirtualizatze aldera.

### Ekintzaren kokapena

Musikak jaietan, eta ondorioz egitarauan, presentzia handia du. Tolosako 2022. urteko San Joan jaietan, guztira **49 ekintza musikal** antolatu ziren.

Egun eta ordutegi desberdinetan egiten dira eta publiko anitzi zuzentzen zaizkie. Espazio fisikoei dagokienez, Euskal Herria Plaza, Plaza Berria, Lopez Mendizabalen Pasealekua eta Plaza, Berdura Plaza, Plaza Zaharra eta kaleetatik zehar egiten dira.

### Jardueraren deskribapena eta analisia

Musika jarduerak jaien erdigunean daude. Balio handiko kultur adierazpenak dira, eta euskal musika edo musika tradizionalaren kasuan, herrien ondareari eta identitateari ere lotuta daude. Tolosako kasuan, gainera, kale musika eta jaiaren artean lotura estua dago, bai Inauterietan, baita San Joan jaietan edo beste batzuetan ere.

Horrenbestez, musika banda eta txarangen presentzia oso altua da Tolosako jaietan, eta hala izan da 2022. urtean ere. Gainera, herri musika tradizionalari lotutako musika bandek eta


taldeek (dultzaineroak eta txistulariak) oso presente jarraitzen dutela antzemango dugu, jaietako momentu gorenetan, sarri.

Gazteei zuzendutako musikak arreta berezia merezi du. Gaueko kontzertuak dira gehienetan, eta hainbat estilo tartekatzen dira: rocka, popa eta ska, besteak beste. Gazteen identitateak aisialdian egiten dutenari lotuta eraikitzen dira, eta haien erreferente nagusiak ere esparru hauetan dituzte: musikariak, kirolariak eta abar. Baina sektore horietan, gizarteko beste esparru batzuetan ematen diren hierarkizazioak eta balore sozialak antzematen dira, eta generoari dagokionez, musika mundua oraindik oso maskulinizatuta dago, erreferente gehienak gizonezkoak direlarik.

## Partaidetzaren genero analisia

Hasteko, 2022. urteko San Joan jaietan programatu diren musika ekintza guztiak analizatu ditugu eta horren arabera, zenbat emakumek eta gizonek parte hartu duten<sup>22</sup> kuantifikatu dugu.

Honen arabera, programatu diren **jarduera musikal guztiak kontuan hartuta**, musikarien (instrumentistak eta ahotsak) **% 64 (476) gizonak izan dira eta % 36 (265) emakumeak**<sup>23</sup>.



Aurtengo datuak 2018ko eta 2019ko San Joan jaietako datuekin alderatuz gero, datuak 2018. urteko datuen berdinak dira. Hau da, oholtzan eta bestelako jarduera musikaletan emakumeen presentzia handitzeko musika taldeak kontratatuzko irizpideak ezartzen diren dokumentuan “kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoa izango da” irizpidea bermatu da, baina nahiz eta ahalegina egin 2019ko datuak hobetzeko, ez da lortu 2018ko

<sup>22</sup>. Kontuan izan datuak ez direla kasu guztietan zehatzak, batez ere talde handien kasuan. Hala ere, zehaztasun falta horrek ez du eragiten dagoen argazki orokorrean; hain zuzen ere, zehaztasun falta oso txikia izan daitekeelako, ia anekdotikoa.


<sup>23</sup> Gehigarrietan musika jardun guztien taula jasotzen da.

datuak gaitztea adostutako dokumentuan jasotzen den bezala: “urtez urte gutxieneko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte” eta “igotzen den heinean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa (%) hurrengo urteko gutxieneko bezala onartuko da” irizpideari dagokionez anbizio gutxi egon dela ematen du.

2022		2019		2018	
Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	gizonak
% 36	% 64	% 28	% 72	% 36	% 64

1. taula: Musikari guztiak sexuaren arabera. 2018, 2019 eta 2022ko konparaketa.

Horretaz gain, musika taldeen osaketaren ezaugarriak ere neurtu ditugu; hau da, kontratatu eta jo dituzten musika taldeetatik zenbat daude mutilez soilik, emakumez soilik edo gizon emakumez (mistoak) osatuta. Ondorioz, **kontratatu diren musika taldeen erdia baino gehiago mistoak izan dira % 56 (25)**; hala ere, **gizonez bakarrik osatutako taldeen ehunekoa oraindik oso altua da % 36 (16) neskez bakarrik osatutako taldeekin konparatuz % 9 (4).**



**2022. urtea 2018ko urtearekin konparatzen badugu, datuak oso antzekoak direla esan daiteke.** Hau da, **2019ko datuak hobetu dira eta ondorioz 2018ko datuetara itzuli da.** Beraz, nahiz eta emakumeen kontratazioetan 2019 eta 2018ko datuak mantendu, esan dezakegu **ez dela ahalegin handirik egin jaietako musika kontratazioetan emakumeen presentzia handitzeko** irizpideetan adostutakoa betetzeko: “urtero emakumez bakarrik osatutako taldeen ehunekoa handitzen joango da”.

	2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Neskez bakarrik osatutako taldeak	8	4	10	4	8	4
Mutilez bakarrik osatutako taldeak	34	16	27	11	34	16
Talde mistoak	58	25	63	26	58	28

2. taula: Musika taldeen osaera sexuaren arabera. 2018 eta 2022 konparaketa

Puntu oso positibo moduan, Batukada Feministaren ikuskizuna izan da. Tolosako kaleetan parte hartzen duten 6. urtea da, eta dagoeneko erreferente bihurtu da. Taldea emakumez soilik osatuta dago. Ikuspegi feminista batetik, musika eta perkusio erritmoen bitartez, ahalduntzea eta kalea okupatzea ere bilatzen dute. Horrelako eredu erreferentziales eragin oso positiboa dute neska gazteengan.


Horretaz gain, azpimarratu behar dugu Batukada Feministaz gain identifikatu diren emakumez bakarrik osatutako beste 3 taldeak bakarlariak izan direla: bat Solstizioko kontzertuaren baitan programatu zen eta beste biak Arnas Berriz kontzertuaren baitan.

Honi tiraka, **talde mistoak gizonen eta emakumez osatutako taldeak dira**, baina “misto” termino horrek ñabardurak izan ahal ditu; hau da, ez da berdina neska bakar bat egotea 10 laguneko talde batean, edo 8 neska egotea. Osaera orekatuaren printzipio hau 2007ko martxoaren 22ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lege Organikoan zehazten da<sup>24</sup>. Hori dela eta, hola banatzea erabaki dugu:

- **Talde mistoa, orekatua:** partaideak sexuen arabera banatuta jartzean, bi sexuen kopuruak partaide guztien % 60 eta % 40 bitartean kokatzen badira.
- **Talde mistoa, feminizatua:** % 60tik gora neskek badira.
- **Talde mistoa, Maskulinizatua:** % 60tik gora mutilak badira.

<sup>24</sup> Hala ere, Martxoaren 3ko moldaketetako 9. puntuko Ordezkaritza Orekatuari dagokionez, honakoa jasotzen da: b) Emakumeek organoan duten ordezkaritza % 60tik gorakoa izanik, egokitzen jotzen denean emakumeek ordezkaritza handiagoa izatea, erabakiak hartzeko eremuetan ordezkaritza txikiegia izatearen ondorioz historikoki izan duten desberdinkeria-egoera zuzentze aldera.

Beraz, aurten kontratatu diren talde mistoen datuak honakoak dira, sortu ditugun 3 kategorien arabera:




Kasu honetan, bi gauza azpimarratu nahiko genuke: alde batetik, kontratatzen diren **talde mistoen artean talde maskulinizatuak gehiengoa dira**. Beraz, nahiz eta esfortzu bat egin talde mistoak kontratatzeko, oraindik talde maskulinizatuak kontratatzen dira gehienetan. Kasu honetan, aurten, **ez da talde misto feminizatu bakar bat ere kontratatu**. Orekatuen artean, musika estiloa korala, musika lasaia edo klasikoa izan da nagusi.

2018., 2019. eta 2022. urteen arteko konparazioa egiten badugu, misto orekatuen datua igo egin da. Aldiz, 2019an bezala, ez da talde misto feminizaturik kontratatu, baina 2018an 2 kontratatu ziren. Orekatu maskulinizatuen kasuan, hiru urte hauetako datu baxuena da kopuru osoetan, ez, aldiz, ehunekotan.

	2022		2019		2018	
	%	Datu osoa	%	Datu osoa	%	Datu osoa
Misto OREKATUA	20	5	15	4	18	5
Misto FEMINIZATUA	0	0	0	0	7	2
Misto MASKULINIZATUA	80	20	85	22	75	21

3. taula: talde mistoak. 2018, 2019 eta 2022ko datu konparatuak

Beste alde batetik ere, gaueetan programatzen diren musika ekintzei begirada bat bota nahi diegu. Guztira **21 ekintza edo musika kontzertu programatu dira** San Joan jailetako **gaueetan**. Grafikoan ikusten den bezala, gaueetako musika ekintzak maskulinizatuta daude: % 86.



Bestalde, programatu diren **gaueko kontzertuetan emakume solista bakar bat dago** eta Solstizio kontzertuaren barruan izan zen. Aldiz, **gizonez bakarrik osatutako 10 talde** eta **orekatu maskulinizatutako 8 musika talde** programatu ziren. Bestetik, **2 talde misto orekatu** ere programatu ziren: bat abesbatza eta bestea Solstizioko kontzertua izan zen.

Azkenengo 3 urteen konparazioa eginez gero, ehunekoetan emakumeen presentzia<sup>25</sup> gaueko kontzertuetan jaitsi den neurrian gizonezkoen presentzia igo egin da.

		2022		2019		2018	
		Datua	%	Datua	%	Datua	%
<b>Emakumez osatutako taldeak</b>		1	5	1	6	0	0
<b>Gizonez osatutako taldeak</b>		10	48	7	43	10	43
<b>Orekatua</b>	<b>Feminizatua</b>	0	0	0	0	2	8
	<b>Orekatua</b>	2	9	0	0	3	34
	<b>Maskulinizatua</b>	8	38	8	50	8	13

Datu hauen guztien analisiaren ondoren esan daiteke musika alorrean emakumeen presentzia areagotzeko ahalegin gutxi egon dela, hain zuzen ere, 2019ko datuak batzuetan hobetu diren heinean, ez dira 2018ko datuak gainditu.

<sup>25</sup> Emakumez osatutako taldeak eta orekatu-feminizatuak kontutan hartuz gero.

## Antolakuntza eta aurrekontua

Musika taldearen aukeraketa era kolaboratibo batean egiten da: udalak bere proposamenak ditu, eta Jai Bileretan horiek kontrastatu eta proposamen berriak jasotzen ditu. 2019tik aurrera **Udalak jaietan musika kontratatzeke irizpide argiak ditu** eta hola dio:

Oholtzan eta beste jarduera musikaletan emakumeen presentzia handitzeko honako hau proposatzen da:

1. Ezaugarri berdineko bi taldeen artean emakume gehien dituen taldea lehenetsiko da.
2. Kontratatuko diren musikarien artean gutxienez % 36 emakumezkoak izango dira.
  - a. Igotzen den hienean, aurreko urteko gutxieneko ehunekoa (%) hurrengo urteko minimo bezala onartuko da.
  - b. Urtez urte gutxieneko ehunekoa (%) igotzeko ahalegina egingo da % 50era heldu arte.
3. Emakumez barrik osatutako taldeen urteko ehunekoa handitzen joango da.
4. Gaueko kontzertuetan emakumeen presentzia minimoa % 25ekoa izango da eta lehenago erabili diren irizpide berdinak ezarriko dira atal honetarako.

Musika aurrekontuari dagokionez, jaietako aurrekontu altuena eramaten duen atala izaten da. Musikarien artean, desberdintasun handiak daude beraiei lanagatik kobratzen duten diruaren inguruan, batzuek eta besteek duten katxetari lotuta batez ere.

Urtez urte, Behatokitik eta Berdintasun Sailetik egindako eskaerari heldu zaio eta aurten Batukada Feministari jotzeagatik jaietako aurrekontutik ordaindu zaio.

Bestalde, musika taldeei dagokionez aurrekonturik handiena Huntza taldeak eraman du. Talde hau, analisi honen arabera misto maskulinizatua da. Hala ere, pasa den urtearekin konparatuta, hobetu egin da, hain zuzen ere, pasa den urteko musika talde garestiena gizonez osatuta baitzegoen.

## Datuak laburbilduz

- Datu kuantitatiboak errepertatuz, 2022ko musika kontzertuetan nesken partaidetza % 36koa izan da, 2019koa baino altuagoa baina 2018koaren datu berdina.
- Taldeen % 8 (4) emakumez bakarrik osatuta egon dira, eta 4 taldeetatik 3 bakarlariak izan dira.
- Taldeen % 58 mistoak izan dira, baina horietatik % 80 talde maskulinizatuak izan dira eta % 20 orekatuak.
- Gaueko kontzertuen % 86 (18) mutilez bakarrik osatutakoak edo talde maskulinizatutako izan dira, % 9 orekatuak (2) eta % 5 (1) emakumez osatutakoak.
- Emakume gehien bildu dituen musika estiloa korala edo klasikoa izan da. Musika estilo hauetan ikusi da batez ere emakumeen parte-hartzea nagusia dela.

Tolosako udala, Jaiak Sailaren bitartez, eta Berdintasun Sailarekin elkarlanean, musika alorrean emakumeen parte-hartzea hazteko urratsak ematen ari da, baina ez da era sistematizatu eta egonkor batean egiten.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Esparru hauetan aurrera pausuak ematean, berdintasun ikuspegia gero eta gehiago hedatuko da, eta eragina izango du jaietako gainontzeko esparruetan ere.

### *Aurrerapenak*

- Datu kuantitatiboei erreparatuz, 2022ko musika kontzertuetan nesken parte-hartzea igo egin da 2019ko datuekin konparatuz gero, baina 2018ko datuekin konparatuz gero berdinu egin da. Dena den, oraindik desberdintasun nabarmenak antzematen dira.
- Batukada Feministak 6. urtez hartu du parte San Joanetan. Bertan 27 emakumek kalean presentzia handia hartzen dute eta ahalduntzerako esperientzia ere bada; beraz, oso erreferente positiboa da, oro har, eta neska gazteentzat bereziki.
- Emakumez osatutako 4 taldek/bakarlarik jo eta abestu dute aurtengo jaietan.
- Jaietan musika kontratazioetan emakume musikarien kopurua handitzeko irizpide adostuak indarrean daude.
- Udal Musika Eskolarekin batera emakume musikarien parte-hartzea hazteko sensibilizazio prestakuntzarekin jarraitu behar da (Tolosako III. Berdintasun Planean jasota dagoen bezala).

### *Proposamenak*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) Planean<sup>26</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Musika taldeen kontratazioetan emakume musikarien kopurua igo (egunez eta gauez) eta Udalak horretarako adostutako Berdintasun irizpideak presente izatea kontratazioak egiten direnean. (P)<sup>27</sup>
- Emakumez bakarrik osatutako musika taldeak kontratatu eta ordutegi eta lekuetan lehentasuna eman.
- Emakumez osatutako taldeen musika estiloaren aniztasuna bermatu.
- Behatokiak adostuta dituen emakume musikarien kopuruak handitzeko berdintasun irizpideak eragile guztiei sozializatu.
- Gizon/emakume binomioa gainditzen dituzten musikariak programatu.
- Musika koralean emakumeen presentzia handia da, musika estilo horren garrantzia nabarmentzeko ekintzak bultzatu eta emakumeen nagusitasunaz ohartarazi.

<sup>26</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>27</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.3 D (14. orria)



- Sinergietan pausuak ematen jarraitu, hala nola, Txosnaguneko eta kuadrillen eguneko ordezkariekin elkartu eta antolatzen dituzten jarduera musikaletan emakumeen presentzia handitzeko sentsibilizazioa landu.
- Herriko txarangei emakumeak diruz kontratatzekeo pizgarriak eskaini.
- Jai bileretan edo jaiak antolatzeko dauden beste bileretan Behatokian atera diren datuak aurkeztu, azaldu eta datuak hobetzeko neurriak adostu.

## Kirolak

### Metodologia

Jarduera honen **analisi** nagusiki **kuantitatiboa** izan da, egitarauan eta bereziki jaietan kirol ekintzaren bat antolatu duten **elkarreek betetako fitxan oinarritu gara**.

Aipatu dugun fitxa Kirol arlotik dirulaguntzak jasotzeko "San Joanetako kirol jardueraren memoria" inprimakia da. Inprimaki hori kirol jardueraren bat antolatzen duen orok bete behar du ekintzaren dirulaguntza jaso ahal izateko.

Inprimaki hori 2018an Kirol Saileko arduradunarekin genero irizpide gehiagorekin aberastu zen. Hau da, inprimakiari antolatzen den ekintzaren genero inpaktua kuantifikatzeko itemak edo galderak batu zitzaizkion.

Beraz, atal honetan kirol arlotik diru laguntza jaso duten kirol jarduerak analizatu dira. Badakigu, San Joanetan Kirol Sailetik ez ezik, Jaiak eta Gazteria Sailetatik ere ekintzak antolatzen direla, baina kasu honetan aurten ez dira Behatokiko analisisan txertatu. Horretaz gain, aipatu behar da, halaber, ekintza batzuetan informazio gehiago dagoela eta beste batzuetan gutxiago.

Memoria fitxak elkarte bakoitzak bidaltzen ditu, beteta, Kirol Sailera San Joanak amaitu ostean, eta hango arduradunak Behatokiari pasatzen dizkio.

2022ko San Joan jaietan, **Kirol Saileko aurrekontutik doazen 7 kirol jarduera antolatu dira. 7ak herriko hainbat eragilek antolatu dituzte**. Ondorengo analisisia eragile bakoitzak beharrezkoa duen dirua jasotzeko betetzen duen fitxatik jasotzen da. Ohikoa zen fitxari 2018an berdintasun irizpideak txertatu zitzaizkion eta gaur arte indarrean dago fitxa hori.

Hauek dira antolatutako 7 kirol jarduerak:

JARDUERA	
1	Gimnasia erritmikoko urte amaierako erakustaldia
2	Futbol txapelketa, V. Urtzi Gurrutxaga memoria
3	Kulturarteko futbol txapelketa
4	3x3 saskibaloia saria
5	T3T Hiru tontorrek maratoia
6	Tenis txapelketako finalak
7	Pentatloia

Hurrengo atalean honako gaiak modu sakonagoan analizatzea erabaki da:

- Partaideen analisisa.
- Ekintza antolatzeko partaideen analisisa.
- Epaimahaiak, esatariak eta bestelako figurak
- Indarkeria kasuak
- Berdintasun irizpideak txertatu.

## Ekintzaren kokapena

Kirol arlotik 7 kirol jarduera bideratu dira San Joanetan. Egun eta ordutegi desberdinetan egiten dira eta publiko anitzi zuzentzen zaizkie. Espazio fisikoei dagokienez, batzuk aire zabalean eta mugimenduan egiten dira, hala nola, 3 Tontorren maratoia, edo aire zabalean baina leku konkretu batean (3x3 txapelketa, kasurako), edo eremu itxietan gimnasia erritmikoko kurtso bukaerako jaialdia Usabal kiroldegian. Horren arabera, honako lekuetan burutzen dira: Berazubi estadioa, Zezen plaza, Alhondegia plaza eta San Frantzisko ibiltokia, Uzturpe kiroldegia.

Lehen esan bezala, Behatokira heldu diren fitxak 7 izan dira eta horren arabera zehaztu dugu kirol ekintzen atala.

## Jardueraren garrantzia, deskribapena eta analisisa

Jaietan kirol jardun asko antolatzen dira, gehienetan kirol klubek edo elkarteek berek, edo horien laguntzarekin antolatutakoak. Festa egitarauetan kirol jardunak sartzeak berarekin dakar eremu horretako balioek eta ereduak neurri handi batean baldintzatzea festen izaera, eta, bereziki emakumeen parte-hartzea.

Esandakoari eutsiz, **kirolaren egungo egitura kontuan hartzen bada, guztiz androzentrikoa dena, zaila izango da festetara sartzen diren kirol jardunak kutsu hori ez izatea**. Festa, bizitzako beste eremu asko bezala, gizentasun “izaera” birsortzeko eta berresteko leku edo modua da. Zalantzarik gabe, jai gehienetan gizonak nabarmenago agertzen dira eta hori lotuta dago genero harremanak ulertzeko erarekin. Carmen Diezen<sup>28</sup> hainbat ikerlanek eta kritikek argi uzten dute kirolaren eta gizentasuna birsortzearen arteko erlazioa eta beharra. Hau da, gizentasunaren eredu agintzailea (lehiakortasuna, indarra, abiadura, bortizkeria, indibidualtasuna eta abar) beste gizonei erakusteko, birsortzeko eta berdinen onarpena lortzeko espazioak behar dira, eta kirola horietako bat da.

Bestalde, Diezek<sup>29</sup> ongi azaltzen duen bezala “gaur egun, aurreratutzat eta modernotzat jotzen diren gizarteetan, kirola gune homosoziala da eta egitura androzentrikoa du, gorenetik hasi eta klub txikienetaraino”. Hau baieztatzen duen beste ikerketa bat ekarriko dugu hona, hain zuzen

<sup>28</sup> Diez Mintegui, C (2006) “*Juventud y deporte. Una propuesta de cambio en la organización tradicional de la actividad*” Revista de Dialectología y Tradiciones populares, Uztail-abendua, LXI Bol. 2. zk.

<sup>29</sup> Diez Mintegui, C (1996) “*Deporte y construcción de las relaciones de género*” Gazeta de Antropología, 12. zk.

ere, Emakunderen [2018ko Zifrak dokumentua](#)<sup>30</sup>. Bertan, elkarteetan gizonen eta emakumeen parte hartzearen arteko aldea 2-3 puntuko da, baina kirol elkarteetan aldiz 13 puntu baino gehiagokoa da. [2020ko Zifrak dokumentuan](#)<sup>31</sup> Euskal Erkidegoan dauden 280.930 federatu lizentzietatik 74.524 (% 26,5) emakumezkoenak dira. Beraz, Gipuzkoako Foru Aldundiko (2009) “[Gipuzkoako lurralde historikoko jaiei buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik](#)” izeneko lanak dioen bezala, irizpide nagusi gisa emakumea bigarren mailan uzten duen egoera orekatzen saiatzeko egiten diren ahalegin guztiek balio handia dute.

2022ko San Joanetan honako kirol motak identifikatu dira<sup>32</sup>:

KIROL MOTA	KOPURUA
Gimnasia erritmikoa	1
Futbol txapelketak (heldu eta haur)	2
Saskibaloia	1
Mendi maratoia	1
Tenisa	1
Pentatloia	1

Lehen azaltzen saiatu garen bezala, **zerrenda honetako kirol gehienak historikoki gizonezkoen afizioekin eta gizontasunaren irudiarekin oso lotuta daudela esan dezakegu.**

## Partaidetzaren genero analisia

Dugun memoria fitxen arabera informazioan oinarrituz, San Joan festetan kirol ekintzetan **batez ere gizonezkoek parte hartu dute**. Gizonezkoen kopuru totala 1.209 (% 73) izan da eta emakumezkoena 443 (% 27). **2018ko<sup>33</sup> datuekin konparatzen badugu, emakumeen parte hartzea igo da**; 2018an emakumeen parte hartzea % 23 izan zen.


<sup>30</sup>[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjunto\\_s/zifrak\\_2018.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjunto_s/zifrak_2018.pdf)

<sup>31</sup>[https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjunto\\_s/zifrak\\_2020.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjunto_s/zifrak_2020.pdf)

<sup>32</sup> Atal honetan bakarrik kirol arlotik diruz lagundu diren kirol ekintzak kontuan hartu dira.

<sup>33</sup> 2018an izan ziren kirol datuak ia modu berean aztertu ziren azken urtean. 2019an, Gazteria Saitetik antolatuta ziren kirolak aztertu ziren eta handik aurrera ez ziren San Joanak aztertu 2022ra arte.

### Kiroletan parte hartu dutenak sexuaren arabera




Kirol zerrendako ekintzak banan-banan hartzen baditugu, **kirol gehienetan gizonezkoen parte-hartzea nagusi** dela ikusiko dugu. **Emakumeen parte-hartzea gehiengoa den ekimena gimnasia erritmikoa da.** Hurrengo taulan, koloretan ezberdindu ditugu: parte-hartze feminizatuko kirolak urdinez, maskulinizatutakoak berdez eta parekideak morez. Horren arabera, parekideak diren bi kirol jarduera daude: 3x3 saskibaloia eta Pentatloia<sup>34</sup>. Binakako pentatloia<sup>35</sup> kasua azpimarratzekoa da emakumeen parte hartzeari garrantzi eta esfortzu handiak eskaintzen dizkiolako; ondorioz, horrek diziplina horretan gero eta emakume gehiago egotea dakar. Kasu honetan, 3 emakume bikotek parte hartu zuten, aurrekoan baino bikote bat gehiago. Lucia Orbea, Garazi Arruti, Karmen Gisasola, Uxue Ansorregi, Nerea Arruti eta Amalur Arbelaitz. Azkenengo bi horiek izan ziren deialdi honetako txapeldunak.

	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Feminizazio / maskulinizazio gradua
Gimnasia erritmikoko urte amaierako erakustaldia	181	1	<b>182</b>	% 99
Futbol txapelketa; V. Urtzi Gurrutxaga memoriale		288	<b>288</b>	% 0
Kulturarteko futbol txapelketa	5	75	<b>80</b>	% 6
3x3 saskibaloia saria	110	160	<b>270</b>	% 41
T3T Hiru tontorrek maratoia	140	660	<b>800</b>	% 18
Tenis txapelketako finalak	1	17	<b>18</b>	% 6
Pentatloia	6	8	<b>14</b>	% 43

<sup>34</sup> Antolatzaileei 2020an elkarriketa bat egin zitzaizen beren antolakuntza ezagutzeko eta emakumeen parte-hartzea bultzatzeko egiten zituzten jarduerak eta ikuspegia ezagutzeko. Elkarriketa horren laburpena Behatokian eta Berdintasun Sailaren esku dago.

<sup>35</sup> Hemen jartzen dugu horren berri eman zuen hedabide bateko esteka, baina ekintza honek oihartzun handia izan zuen eta hedabide anitzek jaso zuten. <https://www.28kanala.eus/saioak-28-kanala/75-herriak/tolosa/11343-nerea-arruti-eta-amalur-arbelaitz-ii-emakumeen-binakako-euskal-pentatloi-sariaren-irabazleak>

Ekintzetan parte hartzen dutenez gain, jarduera antolatzen dutenak ere kontutan hartu ditugu. Kasu honetan **antolatzaileen datuak parekideak** dira, % 45 emakume eta % 55 gizon egon dira antolakuntzan. Guztira 100 lagun egon dira kirol jarduerak antolatzen horietatik 45 emakume eta 55 gizon. Kasu askotan, ekintzaren antolakuntzarako gizon eta emakume kopurua oso antzekoak izan dira; hala ere, emakumerik egon ez den ekintza bat egon da, Tenisa. **2018ko datuekin alderatuz, emakumeen ehunekoa jaitsi egin da**, urte horretan antolakuntzan emakumezkoak % 49 ziren.



Aurten ez dugu epaimahaikideren, arbitroren edo esatariren daturik, hain zuzen ere, aurten fitxan gai horretako atalik ez dagoelako. Gauza bera gertatu da indarkeria matxistaren gaiarekin; hau da, 2018an gai hau aztertu ahal izan zen, baina aurten fitxan gai honi erreferentzia egiten dion galderik ez da egon.

### Datuak laburbilduz

- Kirol arlotik bideratzen diren kirolak esparru oso maskulinizatutakoak dira. Beraz ematen duten argazkia horren ondorioa da.
- San Joan jaietako kirol jarduerak, parte hartzeari dagokionez, oso maskulinizatuta daude (% 73). Baina ikusi den bezala, joera hori ez da San Joanetako arazo bat, baizik eta egiturazko arazo baten isla.
- Parte hartzeari dagokionez, feminizatuta dagoen ekintza bakarra gimnasia erritmikoa da. Hau ere ez da kasualitatea, azken batean kirol hau emakumetasunarekin lotzen diren ezaugarriak ditu (malgutasuna, sutilezia, feminitatea, dantza, musika eta abar).
- Parte hartzea maskulinizatuta dagoen bitartean, antolakuntza aldiz parekidea da.

## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Jaietan berdintasuna txertatzeko esparru irekia dela esan daiteke, behintzat udal arloari dagokionez; hala ere, esparru horretan aurrerapenak islatzea bezain garrantzitsua da proposamenak jasotzea.

### *Aurrerapenak kirolean*

- Kirol jarduerak antolatzeke orduan, antolakuntza parekidea da.
- Kirol batzuek hainbat ekintza burutu dituzte haien ekintzetara emakumeak hurbiltzeko: emakumeei federatuta egotea ez eskatzea, herriko emakume kirolariekin edo emakume taldeekin harremanetan jartzea ekintzara gonbidatzeko, urte osoan zehar laguntza ematea emakumeak publikoki seguru ateratzeko...
- Kirol Sailak gaiarekiko sentsibilitate handia adierazten du. Bide beretik, elkarlanerako konpromiso du.

### *Proposamenak kirolean*

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerari lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>36</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira ("P" hizkiarekin identifikatuta).

- Horren estereotipatuak ez dauden beste kirol edo jarduerak (piraguismoa, orientazio probak...) antolatu dira jaietan gutxiago erabiltzen diren eremu edo momentuetan (erreka, inguruko mendiak, probak gauzez egin...). (P)<sup>37</sup>
- Jaietan presentziarik ez duten kirol jarduerak jaietan ekintzak antolatzera animatu; hala nola, kiroldegian egiten diren beste kirol batzuk (spinning, aerobic, edo bestelako kirolak –arrauna, boleibola eta abar). (P)<sup>38</sup>
- Kirol eremuan azterketa sakonagoa eta kualitatiboa egin, jaien/kirolen eta emakumeen arteko harremana ezagutzeko eta etorkizunerako neurriak identifikatu ahal izateko.
- Kirol arloan diziplina ezberdinetako emakume kirolariak ikusarazteko ekintzak antolatu jaietan. (P)<sup>39</sup>
- San Joanetan kirol jarduerak antolatzen dituzten eragileak berdintasunean eta indarkeria matxistan sentsibilizatu. Horrela, indarkeria identifikatzeko tresnak emango zitzaizkien, baita irizpideak ere beraien ekintzetan berdintasuna bultzatzeko neurriak identifikatzen joateko.

<sup>36</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>37</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.2 C (13. orria)

<sup>38</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.2 A (13. orria)

<sup>39</sup> Planean jasota: 3. Ardatza: *Tolosako jaietako jardueretan genero ikuspegi kritikoa txertatu*, 3.1 Arloa, Helburua 3.1.1 A (13. orria)

## 7. INDARKERIA

### Sarrera

---

Indarkeria sexistaren gaia jaietan oso presente egon izan da azken urteetan: sexu erasoko kasuek egoeraren larritasuna agerian uzten dute, eta erakunde publikoek beraien ardura hartzen joan dira. **Tolosa aitzindaria izan da gai honetan, eta indarkeria sexista testuinguru zabalago batean kokatzeko gaitasuna izan du; jaietan.**

Bi lan-ildo nagusi garatu izan dira: **sentsibilizazioa eta, eraso kasuetan, erantzuna**. Azken hau protokoloaren bitartez arautu da. Behatokiak ere bi atal hauek aztertu ditu, ondorengo aldagaien bitartez:

### *Joka sano! Tolosak, ezetz! #LIBRENonahi* kanpainak eta beste jarduera batzuk

---

2020. urteko **indarkeria matxistaren kontrako kanpainak** ekintza ezberdinak izan ditu. Hona hemen egin denaren zerrenda:

- *#LIBRENonahi* kalkomaniak jaietako hainbat eremutan banatu ziren: kuadrilla eguneko bazkarian, eraikin publikoetan (Kultur Etxea, UDATE, Gizarte Zerbitzuak, Musika Eskola, Euskaltegia...).
- Gazteria Sailak antolatuta, urtero I LAKET elkarteak gazteekin egiten zuen esku-hartzea prestatu zuen baina bero handien ondorioz ez zen egin.
- Joka Sano kartela 24 orduko telefonoarekin hainbat lekutan zabaldu zen: herriko panel informatiboetan, taberna eta saltokietan, panel elektronikoetan, Leidorreko bideoan.
- Egitarauko eskuorri handian eta txikian indarkeria matxistaren aurkako mezuak eta udaltzaingoaren telefonoa jarri ziren.
- Berritasun bezala, tabernariei alkateak sinatutako gutun bat bidali zitzaizen, eraso sexista baten aurrean jarraitu beharreko gomendioekin.

Tolosako udalak ibilbide luzea du jaietan indarkeria sexistaren kontrako jarrera erakusten eta sentsibilizazio kanpainak abiatzen, San Joan jaietan zein Inauterietan. Eta Tolosak, EZETZ!/Joka Sano kanpaina konpromiso horren erakusle garbia da. Horretaz gain, San Joanetako prentsa agerraldian alkateak esandako hitzak eta gaiari jarritako arreta azpimarratu behar dira.

Kanpaina horiez gain, azken urteetan **indarkeria sexistari aurre egiteko beste lanketa era batzuk ere sozializatzen ari dira**, hala nola autodefentsa tailerra ematen jarraitzen dugu eta adin ezberdinetako emakumeak elkartzen ditugu, baita gazteenak ere.





## Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa

2017an “Udal zerbitzuen betebeharrak” izeneko protokoloa jai testuingurura egokitzea izan zen. Geroztik protokoloa indarrean egon da, eta une oro behar izan duen egokitzapen txikiak egin zaizkio. **Protokoloan udal-zerbitzuen betebeharrak zeintzuk izan behar diren azaltzen da** eta erantzukizun teknikoa Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuen artean partekatzen da. Batetik, emakumeari eman beharreko asistentzia festaz kanpoko kasuen berdina izango da. Bigarrenez, egoerari/informazioari eman behar zaion tratamendua azaltzen da. San Joanetan, udaltzaingoak informazio jaso ondoren, alkateari, jaietako eta berdintasuneko zinegotziei gertatutakoaren berri emango diela jasotzen da.

Hirugarren atalak, deialdi publiko-bateratuari egiten dio erreferentzia. Udala eta Mugimendu Feminista eta Tolosako emakume elkarten artean deialdi bateratu bat egingo da. Eta San Joan jaien testuinguruan gertatzen dela kontuan hartuta, jaietako eragile guztiekin koordinazioa mantenduko da: zinegotzi eta teknikariek informazio jasoko dute eta jaietako eragile sozialei helaraziko diete, jaietako teknikariaren laguntzarekin (eskopetariak, kuadrillako ordezkariak, Bordon-dantzariak, musika bandakoak, txosna gunekoak, kiroleko ordezkariak...). Kontzentrazioa eraso gertatu ondorengo 24 ordura egingo da, 19:00tan udaletxe aurrean.

**Berriazko protokolo horren bitartez, eragileen jarduna arautu da:** udal eragile, Mugimendu Feminista eta emakume elkarte eta jaietan parte hartzen duten eragileena. Protokoloa egiteko orduan, Mugimendu Feministako eta emakume elkarteetako kideek ere parte hartu dute, eta beraz, adostasun zabal batekin egin dela esan daiteke. Berdintasun teknikariek prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egiten dute.

**Protokolo hori onartzeak jaietan indarkeria sexistaren gaian balio handiko urrats bat gehiago ematea esan nahi du:** udalak jaietan erantzun koordinatu bat emateko konpromisoa hartzen du, lehentasunezko gaia dela aitortuz. Horregatik, garrantzitsua da protokoloa onartu izanari buruzko komunikazioa ere egitea. Interesgarria litzateke joera hau mantentzea eta hurrengo urteetan ere, gogorapen moduan protokoloaren sozializazioan sakontzen jarraitzea.

**2022ko San Joanetan ez da sexu eraso salaketarik egon,** eta beraz, protokoloa ez da aktibatua. Ondorioz, San Joanetan ez dago aurtengo protokoloaren jardunaren baloraziorik. Hala ere, aipatu behar da protokolo hau Inauterietan aktibatua behar izan zela, hain zuzen ere gertatutako talde bortxaketa baten ondorioz. Protokoloaren balorazio positiboa egin zen eta gertaera horri emandako herri erantzuna paregabea izan zela azpimarratu behar da.



## Balorazioa: Aurrerapenak eta erronkak

Aipatu bezala, eraso sexistaren esparruan jaietan udal politika nahiko egonkortuta dago, sentsibilizazioaren alorrean bereziki. Erasoen aurrean eman beharreko erantzunari dagokionez, maila formalean lortutako adostasuna praktikan ere islatu beharko litzateke, baina hau ez dugu ikusiko eraso kasu berririk egon arte.

Ondorengo lerroetan aurrerapenak eta etorkizunerako proposamenak azaltzen dira:

### Aurrerapenak

- *Tolosak, EZETZ! dio indarkeria sexistaren aurrean. Joka sano kanpaina, #LIBRENonahi* egonkortuta dago eta programaren euskarri ezberdinetan agertzen da, dagoeneko jaietako paisaian parte da.
- Udal protokoloak, jaien testuingurura egokituak, indarrean jarraitzen du.
- Tolosako tabernariekin berariazko lanketak egin dira beraien lantokietan erasoak identifikatzen laguntzeko eta horren aurrean zer egin jakiteko aholkuekin.
- Autodefentsa feminista ikastaroak egonkortu dira, eta urtero Jabetza Eskolako eskaintza egiten da.

## Proposamenak

Hemen egiten ditugun proposamenak aurtengo egoerarekin lotutakoak dira; hala ere, gai honetan gehiago sakontzeko [Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren](#) planean<sup>40</sup> gai honi lotutako proposamen gehiago jasotzen dira (“P” hizkiarekin identifikatuta).

- Jai bileratan parte hartzen duten elkarteei indarkeria matxistaren gaia haien talde eta festa espazioetan lantzea eskaini, eta aholkularitzaren eta bidelaguntzaren beharra dutenak identifikatu. (P)<sup>41</sup>
- Tolosako txosnekin berariazko lanketak egin beraien eremuetan erasoak eta gai honetan drogek duten eragina identifikatzen laguntzeko eta horren aurrean zer egin jakiteko. (P)<sup>42</sup>
- Eraso matxisten kontrako protokoloa jai bileretan eta jaiak antolatzeko bestelako bileretan aurkeztu eta azalduko da urtero. (P)<sup>43</sup>
- Jaietako eragileei indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza eman, erasoak identifikatzeko eta eraso baten aurrean baliabideak izateko. Urtero erabaki daiteke zer eragilek jasoko dute prestakuntza. (P)<sup>44</sup>
- Jaietan zehar “Puntu Moreak” zerbitzua kontratatu.
- Autodefentsa feminista nerabe eta gazteentzako antolatu urtean zehar edo jaiak baino lehenagoko egunetan.
- Gaian sakontzen joateko beste formula batzuk arakatu eta esperimentatu.
- Gaia lantzeko garatu den komunikazio estrategiarekin jarraitu.

<sup>40</sup> [https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA\\_TXOSTENA\\_EUS\\_3.pdf](https://udala.tolosa.eus/sites/default/files/BERDINTASUNA_TXOSTENA_EUS_3.pdf)

<sup>41</sup> Planean jasota: 4. Ardatza: *Denok goza dezagun*, indarkeria matxistarik gabeko jaiak, 4.2 arloa, Helburua 4.2.3 C (18. orria)

<sup>42</sup> Planean jasota: 4. Ardatza: *Denok goza dezagun*, indarkeria matxistarik gabeko jaiak, 4.2 arloa, Helburua 4.2.3 A (18. orria)

<sup>43</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 arloa, Helburua 2.1.2 C (18. orria)

<sup>44</sup> Planean jasota: 2. Ardatza: *Tolosako jaien antolakuntza berdinzaleago baterantz*; 2.1 Arloa; Helburua 2.1.3 C (11. orria)

## 8. BALORAZIO OROKORRA

Aurtengo analisia gehi orain arte egin diren analisi guztiak kontuan izanda, San Joan jaietan berdintasun ikuspegia hainbat arlotan bermatzen dela esan dezakegu, hala nola, komunikazioarekin erlazionatuta dauden eremu gehienetan (prentsurrekoak, programa, alkatearen hitzaurrea, kartel lehiaketa eta abar) edo indarkeria sexistaren inguruko sensibilizazio eta esku hartze protokoloan. Beraz, udalari dagozkion bi gai horiek udal funtzionamenduan barneratuta eta sistematizatuta daude; hala ere, ezin da gaien erlaxatu nolabaiteko inertzien gehienetan berdintasunaren kontrako jokaerak ekar dezaketelako.

Antolakuntza esparru garrantzitsua da jaietan. Alabaina, aurten ezin izan da sakonki analizatu, hain zuzen ere, orain arte azterten genituen jai bilerak bilera bakarrera murriztu izan delako eta Behatokiak ezin izan zuen parte hartu. Hala ere, jai bilera bakar batean ez dira jaiak antolatzen, beraz, berdintasuna bultzatze aldera, jaiak antolatzen diren espazio formal eta informalak identifikatu beharko ziren, edo beharrezkoa balitz, jaien antolakuntza berdinzale baten aldeko jaien antolakuntzarako espazioak sortu. Laburbilduz, jaien antolakuntzan eragitea funtsezkoa da jai berdinzale baten alde pausuak emateko.

Bestalde, Txupinazoaren aukeraketan udalak indarrean dituen irizpideak argi eta adostuak dituela azpimarratu behar da. Ondorioz, aurten emakume batek bota du txupinazoa. Aldi berean, emakume horrek feminizatuta dagoen jarduera bat ordezkatzeko zuen, jarduera eta emakumea bera balio handiko postu batean jarriz. Diskurtsoan ere berdintasunak eta jaiak indarkeriarik gabe bizitzeko mezuek lekua izan dute.

Musikan, emakumeen presentzia jaietako kaleetan eta oholtzetan, datu kuantitatiboen bitartez analizatu dugu. Aurtengo datuak 2018ko datuetara parekatu dira, 2019ko datuak hobetu diren arren, ez dira 2018koak gainditu. Hau da, jaietako musika kontratazioetan gizonezkoek gehiengoa izaten jarraitzen dute (% 64). Anbizio maila baxua izan dela esan daiteke, nahiz eta udalak gai honetan emakumeen presentzia handitzeko berdintasun irizpideak adostuak eta indarrean izan. Nabarmendu behar da, aurten, azkenengo urteetan bezala, Batumorek, emakumez bakarrik osatutako batukada, jaietan jo duela.

Kiroletan, aurten ere gizonezkoak (% 73) eta gizonezkoekin lotzen diren kirolak gailendu dira. Hala ere, emakumeen parte hartzea 2018arekin konparatuz, pixka bat hobetu da (2018an % 23 – 2022an % 27). Kirol jardueren antolakuntzan, aldiz, datuak parekideak dira (gizonak % 55 eta emakumeak % 45). Dena dela, eremu honetan oraindik eragiteko gaitasuna handia dagoela ikusten da; esaterako, emakumetasunarekin lotutako kirolak edo hain generizatuta ez dauden kirol gehiago programatuz, hala nola, patinajea, soka saltoa, zunba, orientazio probak, nordic walking, kayak eta abar.

Azkenik, Behatokitik San Joan jaietan berdintasunaren aldeko pausuak ematen ari direla ikusten da, nahiz eta aurten ez azertu, Bordon-dantzarien kapitaina eta Prozesioko Aguazila lehenbiziko aldiz emakumezkoak izan dira. Horrelako aldaketak jaietan eta gizartean aurrerapenak ematen ari direlako gertatzen dira, beraz, ez dugu ahaztu behar jaiak gizartearen isla direla. Hau da, jaietan eragiteaz gain egunerokotasunean eragin behar da. Honekin batera, Behatokiak nahiz eta jaietan ematen den berdintasun arrakala eta aurrerapausoak neurtu, eragiteko bokazioa ere badu. Beraz, poliki-poliki jaien eremu ezberdinetan eragiteko izan dezakeen gaitasunerako bideak eta tresnak jarri behar dira jaiak kualitatiboki ere berdinzaleagoak izan daitezen. Honi lotuta, ez dugu ahaztu behar Behatokiak 2021ean jaiak berdinzaleagoak izan daitezen plan bat osatu zuela. Bertan, aipatu diren gai horietan guztietan pausuak emateko ekintzak biltzen dira. Beraz, berdintasunean aurrera jarraitu nahi badugu, orain arte landu eta identifikatu diren kanpo eta barneko sinergiekin batera, planari heltzen jarraitu behar zaio eta bertan dauden ekintzak udalarekin eta herriko eragileekin batera aktibatu beharko dira, betiere, orain arte egiten denarekin uztartuz.

## 9. GEHIGARRIAK

Musika aztertzeko erabili den taula:

<b>SAN JOANAK 2022</b>	<b>NESKAK</b>	<b>MUTILAK</b>	<b>GUZTIRA</b>
Huntza	2	4	<b>6</b>
Nikotina		3	<b>3</b>
Hodeiertz abesbatzak	15	10	<b>25</b>
Tolosako Udal Musika Banda	15	30	<b>45</b>
Skakeitan	1	7	<b>8</b>
Puro Relajo		5	<b>5</b>
Orquesta Tsunami	1	3	<b>4</b>
Dupla		2	<b>2</b>
Muxutruk	2	3	<b>5</b>
Dantzaldia Joxe Mendizabalekin		1	<b>1</b>
Bulego	1	4	<b>5</b>
Kerobia		4	<b>4</b>
Burrumba elektrotzaranga	2	13	<b>15</b>
Jainekin txaranga kalez kale		10	<b>10</b>
Kalean txaranga kalez kale	1	9	<b>10</b>
Joseba Tapia		1	<b>1</b>
XIIX. Solstizio kontzertua: et encarnatus orkestra	14	12	<b>26</b>
XIIX. Solstizio kontzertua solista: Mikel Urdangarin		1	<b>1</b>
XIIX. Solstizio kontzertua solista: Baigorriko Gaiteroak		2	<b>2</b>
XIIX. Solstizio kontzertua solista: Leturia		1	<b>1</b>
XIIX. Solstizio kontzertua solista: Kristina Aranzade	1		<b>1</b>
Bonborenea txaranga	5	18	<b>23</b>
Giroarte dultzaina taldea	1	3	<b>4</b>
Iratzar taldea erromeria	2	4	<b>6</b>
Tolosaldeko dultzaineroak	1	3	<b>4</b>
Batumore batukada feminista	27		<b>27</b>
Mulanbo perkusio taldea kalejira	6	10	<b>16</b>
Orkestrina band jazpana, oroimenerako kontzertua		6	<b>6</b>
Tristan Crowley		1	<b>1</b>
Udal txistularien banda, kalejira		6	<b>6</b>
Iraunkorrak txaranga		10	<b>10</b>
Tolosako musika eskolako banda	28	35	<b>63</b>

Isidro Larrañaga akordeoi orkestra	12	11	<b>23</b>
Udal txistularien banda, kalejira		6	<b>6</b>
Udal musika banda, diana	10	32	<b>42</b>
Tolosako eta Iruñeko txistularien banda, diana		10	<b>10</b>
Tolosako dultzaineroak, diana	1	3	<b>4</b>
Tolosako udal musika banda, eskopetariekin batera	15	30	<b>45</b>
Santa maria musika kapera, eskopetariekin	38	32	<b>70</b>
Udal musika banda, kontzertua Tolosako eta Iruñeko txistularien bandarekin	15	30	<b>45</b>
Tolosako eta Iruñeko txistularien banda, kontzertua		10	<b>10</b>
Udal musika banda, eskopetariekin batera	15	30	<b>45</b>
Udal txistularien banda, eskopetariekin batera		6	<b>6</b>
Arnas berriz kontzertua, txistularien banda gehi beste eragileak	32	55	<b>87</b>
Arnas berriz kontzertua, SOLISTA Irene Lopez	1		<b>1</b>
Arnas berriz kontzertua, SOLISTA akordeoia Ane Urbizu	1		<b>1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>265</b>	<b>476</b>	<b>741</b>

## PROIEKTUAREN LIDERGOA:



## -REN LAGUNTZAREKIN

## PROIEKTUAREN DINAMIZAZIOA:



[www.farapi.com](http://www.farapi.com)

943 00 35 85

[info@farapi.com](mailto:info@farapi.com)

Mundaiz bidea 10, 23.bulegoa  
20012 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)